

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### Eskola garraiorako dirulaguntzetarako deialdiaren laburpena

BDNS (Identif.): 815818.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/815818>.

Alkatearen 2025eko otsailaren 17ko ebazpena, eskola garraiorako norgehiagoka bidezko dirulaguntzen 2024-2025erako deialdia egiten duena.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: [www.infosubvenciones.es](http://www.infosubvenciones.es).

#### Lehenengoa.- Onuradunak

Onuradunak udalerrian, gutxienez, urtebete erroldatuta daramaten pertsonak izango dira, baldin eta ikastetxe ofizialetan derrigorrezko hezkuntzakoak ez diren ikasketak egiten ari badira.

#### Bigarrena.- Xedea

Dirulaguntzaren helburua da udalerrian erroldatutako pertsonen derrigorrezko hezkuntza baino goragoko ikasketak egin ditzaten sustatzea.

Honako ikasketa hauek egiteko emango da garraiorako dirulaguntza:

Batxilergoa.

Erdi mailako LH.

Goi mailako hezkuntza, zehazki honako hauek:

Unibertsitate ikasketak.

Goi mailako arte ikasketak.

Arte plastikoetako eta diseinuko goi mailako ikasketa profesionalak.

Goi mailako LH.

Goi mailako kirol ikasketak.

Ez dira diruz lagunduko hizkuntza eskoletako hizkuntza ikasketak; filologia ikasketetarako garraioa baino ez da diruz lagunduko.

Ez dira diruz lagunduko urrutiko ikasketak.

#### Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2020ko urriaren 26ko bilkuran onetsi eta urtarrilaren 8ko 2/2021 ALHAOn argitaratu ziren.

**Laugarrena.- Laguntzaren zenbatekoa**

Dirulaguntzek ezingo dute inola ere gainditu egindako gastuaren ehuneko 90, eta gehieneko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Araba barruko garraioa:

90,00 euro, baldin eta ikasketa zentrorra goizez edo arratsaldean joaten bada.

180,00 euro, baldin eta ikasketa zentrorra goizez eta arratsaldean joaten bada.

Ordutegi mistoa izanez gero (aurreko bien nahasketa) hiruko erregela egingo da dagokion dirulaguntza kalkulatzeko.

Arabatik kanpoko garraioa: erabiltzen den garraioaren arabera, dirulaguntza honako hau izango da:

Egindako gastuaren ehuneko 90, 600,00 euroko mugarekin, garraio publikoa erabiltzen bada.

150,00 euro, baldin eta ibilgailu pribatua erabiltzen bada.

Batzuetan garraio publikoan eta beste batzuetan ibilgailu pribatuan joanez gero, eskatzaileak bi aukeren artean aukeratu beharko du, udalak horietako bat baino ez baitu diruz lagunduko.

Arabatik kanpo egiten diren ikasketen kasuan, onuradunak egoitza duen udalerritik ikasketa zentroa dagoen hirira bitarteko bidaiak bakarrik lagundu ahal izango dira diruz, autobus/tren eta abarren aldaketak barne. Ez dira kontuan izango beste toki batzuetatik abiatutako bidaiak.

**Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea.**

Eskaerak oinarrien eranskinean ageri den ereduan egin behar dira, eta oinarrietan jasotako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epea 2025eko abuztuaren 2an bukatuko da.

**Seigarrena.- Eskaerari erantsi beharreko agiriak.**

Ikasketak Araban egiten badira:

Ikasketak egiten diren ikastetxeko matrikularen fotokopia eta matrikula horren ordainagiria. Ikastetxeak matrikularik ematen ez badu, ikastetxeak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiri horretan, adierazi beharko da ikasketak deialdiaren ikasturtean egin direla.

Diruz laguntzekoa den ikastaroaren urteko eskola ordutegia.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Ikasketak Arabatik kanpo egiten badira:

Ikasketak egiten diren ikastetxeko matrikularen fotokopia eta matrikula horren ordainagiria.

Diruz laguntzekoa den ikastaroaren urteko eskola egutegia.

Garraio publikoan egindako bidaien zerrenda, eskatzaileak sinatua, egunak eta joan-etorriak zehaztuta, eta egindako gastuen egiaztapenak erantsita (fakturak, txartelak, etab.).

Bidaiak ibilgailu partikularrean egin badira, zinpeko adierazpena,

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Dura, 2025eko otsailaren 17a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*